

# GOSEA MUNDUAN

## EUSKALERRIAN

Euzkadi ez dago oraingoz gosez. Gure lurraldean gitxi izango dira, iñor ba'da, janaririk ezagaitik ilten diranak.

Ba-daukaguz gure buru-auste ta arazo ikaragarriak: Gogorke-ria, lan-bakoak, erreken, aizearen eta eguratsaren kutsadura, garraio edo joan-etorriak, ekoloji-arazo aundiak... Baiña ilten ete da iñor Euskalerrian gosez?

\* \*  
\* \*

## JOKABIDEAK

Ete dakigu munduan zear gose ikarawarria dahillenik? C:nceawai-  
lift SILa-sCHIV cuu ILVII  
diranik?

Gosearen zio, errazoi bat, lur-  
raren arazoetan dago, batez be  
artu-emonai dagokiezenetan, jabe-  
dunen eta onein onuren arazoa da  
zati on bat.

Erri askoren erabagiak, kanpo-  
tik urietara doazen arazoak,  
lur-legearren barriztu-bearra, langi-  
leen sindikatu alkartuen jokabi-  
deak, iraulketa orlegia... eta ola-  
koen ostean kondaira luzea dago,  
guztiak sakontzeko.

Irugarren mundua olako joka-  
bidez eratzen da eta garrantzi  
aundia dauke erri-arteke aldi barri  
onetan.

\* \*  
\* \*

## ZER AZTERTU?

Ez dagigun esan lur larregirik  
ez dagoala eta ori dala munduko  
gosearen zioa.

Obeto litzake lurraren jabe nor-  
tzuk diran, lurra nortzuk lantzen  
daben arakatzea, gobernuetako



agintariak dirua non eralgiten da-  
ben billazea, lugiñak gura dabena  
esateko zelango askatasuna dau-  
ken itauntzen, uriko gizonak zer-  
gaitik besetxea onartzen ez  
finnan iakitea *eknnnmi* nnnrak

ILUICLWU bucurraft, uiaucurxeria  
aztuntasuna neurtzean, ume ta an-  
dratzkoai egiten jakezan lapurre-  
tan kontuan artzea.

\* \*  
\* \*

## GUZTIAI

Guk eziña dala uste izan arren,  
urtean zear euneko 306 artzen  
dabe irabazi lez irugarren mundu-  
ko mailleagoak toki batzutan.

Gizon aberats eta aundiki  
kontzientzi-bakoen lapurketa ta  
maltzurkeria eta zapalketak al-  
dendu bear doguz, lurak giza-  
seme ta alabai janaria emotea nai  
ba'dogu, munduko gosea kentzea  
benetan gura ba'dogu.

Igazko urrillaren 16'an egin zan  
«munduko janari-eguna» lenen-  
goz.

Egun au, bere asieraren 36n.  
urtean ospatu dau FAO'k (Lugin-  
tza ta Janarien Erakundeak), giza-  
diaren oiñarrian diranai ta aundi-  
gogo barria eroateko. 420 milloi  
gosedunentzat janaria billatzeko.

Bakoitxak, dan lakoa dala, bizi-  
teko ta jateko eskubidea dauko,  
berak janari ori irabazi ezin ba'-  
dau be bai, naizta umea, zarra, el-  
barritua... izan.

\*

## GOSE EGUNA

Orregaitik, Mundu guztian egi-  
ten dan gose-eguna, gosearen aur-  
ka munduan zeozer egiteko da.  
Lurra landuten dabena omenaldia  
egiteko eguna da, janaria eurak  
sortzen dabena ezkeroko.

Gosea zergaitik sortzen dan eta  
zelan azpiratu leitekean aztertze-  
ko eguna da.

ko Eguna erri-maillan egun au os-  
patzea nai dau. Mundu guztiko  
errien maillan. Lur-langilleen ara-  
zo ta larrialdiak ez dira erri bate-  
koak, guzarte-arlo batekoak, za-  
balagoak baiño.

Sarri-askotan lugin-taldea txar-  
to begiratu ta ikusia izaten da eta  
or sortzen da erriaren txirotasuna,  
bear-aldia, ez-eukitasunaren zioa.

Lur-Legearren politikea, erriaren  
bide okertuak eta zuzen-ezak,  
gose ta iraulketearen sustrai ta  
sorburu izaten dira.

\* \*  
\* \*

## ESKU BATUAK

Esku Batuak ekiñaldiak bost el-  
buru ditu garrantzitsuenak eta  
onein artean nagusia lugintza-  
ren egoera larria da.

Lugintzak izan bear dau, egoki-  
ro eratu ezkeroko, erri txiroen ara-  
zoak ebazteko laguntzarik aundie-  
na emon bear dauana.

LETONAK